

SECCION AMENA.

CHIKITAKO KONTUBAK.

Etzaizkit beñere aztuko nik chikitak pasatzen nituben larritasunak, amonarekiñ bisiteta juatian.

Etzuben iganderik utziko, meza-nagusiya bukatu eta katillu sal-dachua artu ondorian, bere betiko bisitak egin gabe.

Eta nik lagundu biar izaten niyon; ondo dakit zér estutasunakiñ.

—«Tira, tira, esango ziran, orain juan biar degu andre Mikela Juana (edo Juana Mikela, edo zana zala) bibitatzera, eta ondo ibiltzen bazera emango dizut kremazko pastela».

Ala eramango ninduben goguaren kontra, bildur bildurrez pasako nituben eskallerak, malla bakoitzian barrenak *pill, pill* egiten zirala, eta allegatzian tirakoziyon zintzerriyari, zein *tilin, tilin* ariko zan mezakanpana baño denbora geyaguan.

Atia irikitzen zanian agertuko zan atez kanpora sudur luze ezpata baño zorrotzagoko bat, eta aronzko aldetik bere jabia, emakume Simur Simur bar; ez dakit nik, echeko andriaren amona difuntaren aur-zai etorriya zala esaten zuten, eta oraindik *neskacharen* izenian zeguen.

Sartuko giñan barrena, eta ura usai gozua zetorren sukalde aldetik; nayagoko nuben ordubanchen leku illun sala deitzen ziyoten artara juan baño sukaldera juan.

Asiko zan orduban gure *neskacha* (noiz pait izandua) berriketa zeriyola, sekulako zalamerikeriyak egiten.... eta lenago simurrez betia izanagatik, egiten zituben oraindik Simur geyago. ¡Ez dakit nik nun kabitzen-ziran Simur ayek guztiyak!

Juango giñan gero sala-ra eta echeko-andria aterakozan baba zeri-yola milla kunplimentu egitera eta gela artan sartuko ginduben, gordiaz nik buruba amonaren gottenan.

Orduban bai egoten nitzala bildurrez *dar, dar*, nere chimisten-kontrako chapelian arpegiya tapatzen nubela!

Ez nuben begirik ere alchatzen, bañan noizian beiñ eskuba bai, amonari gonatik tiratzeko, akordatu zeiyen leku-artatik juan biar gendubela.

Jaungoikuak daki (eta nik ere bai) zenbat eta zenbat denboran egoten ziran berriketa zeriyotela, kontu kontari, Donostiyako famili guztiyen ziran eta etziran kontubak esaten.

Noiz bait ere aspertzen ziran eta... orduban nere chanda.

—«Orisen da illoba polita, esango ziran echeko-andriak, zér mutill sinchua izan biar duben. (Nik tapa orduban arpegiya). Eskolará juan zera e? Asko ikasi aldezu? (Tapa geyago) Ez aldakizu izketan? Katubak jango-ziyon mingaña! (Nayago nuben berari jan baliyo).

Ez zezan chinistu mutuba nitzala, esangonuben orduban: amona echeria!

Aterako giñan alakorik batian, eskal-buruban egingo zituzten azkeneko kunplimentubak eta.... ura barrengo lasaitasuna amonarekiñ bakarrik arkitzian!

Eta esangoziran amonak: oraindik goiza da bai, ta beste bisita bat egin biar degu.

¡Urazanistilluba! Baña.... batekiñ sobra dute nere irakurleak.

TORIBIO ALZAGA.

